


FUNTZIOAREN PERIODIKOTASUNA

Funtzio periodikoak aldagai askeak **tarte jakin bat zeharkatzen duen bakoitzean errepikatzen direnak** dira. Tarte horren luzerari **PERIODO** esaten zaio.

[Bideo honetan](#) periodikotasunaren azalpena ikus dezakezu.


Ariketa ebatzia

Grafiko honetan, periodoa 7 duen funtzio periodiko baten hasiera adierazita dago. Kalkulatu zer balio hartzen dituen funtzio horrek $a = 10$; $b = 19$; $c = 418,5$ eta $d = 1778$ abzisa-puntuetan.



$a = 10 \rightarrow f(10) = f(3) = 3$ (izan ere, $10 = 7 \cdot 1 + 3$, eta funtzioa 7 unitaterik behin errepikatzen da)

$b = 19 \rightarrow f(19) = f(5) = 4$ (izan ere, $19 = 7 \cdot 2 + 5$)




$c = 418,5 \rightarrow f(418,5) = f(5,5) = 3$ (izan ere, $418,5 = 7 \cdot 59 + 5,5$)

$d = 1778 \rightarrow f(1778) = f(0) = 0$ (izan ere, $1778 = 7 \cdot 254$)

PRAKTIKAN JARTZEKO

4. a) Funtzio hau periodikoa da?



b) Zein da periodoa?

c) Kalkulatu zer balio hartzen dituen funtzioak abzisa-puntu hauetan: $x = 2$; $x = 4$; $x = 40$; $x = 42$.

